



**JASOTAKO IZENAREN ORDEZ ERABILI OHI DENA
JARTZEKO BAIMENA EMATEKO BEHARREZKOAK
DIREN BETEKIZUNAK**

1. Idatziz egin behar da eskaera, eta eskatzailearen helbideari dagokion Erregistro Zibileko arduradunari zuzendu behar zaio.

Izen-aldaketa adingabe batentzat bada, bi gurasoek edo legezko ordezkariak egin beharko dute eskaera.

**Adierazitako idazkia, beherago aipatzen diren
agiriekin batera, ERREGISTRO ZIBILAREN
bulegoko leihatilan aurkeztu behar da.**

2. Idazkian nortasun-aipamenak jasoko dira, eta adieraziko da zeintzuk diren Erregistro Zibilean jasota dagoen izena eta ipini nahi dena. Horrez gain, adieraziko da zergatik egin nahi den aldaketa eta aldaketak ez diela inolako kalterik eragiten hirugarrenei.

**IDAZKIAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO
AGIRIAK**

- NANaren fotokopia. Agiri horretan agertzen den helbidea Erregistro Zibil honetakoa ez bada, helbidea egiaztatuko duen erroldatze-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da (Udalarena).
- Hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria.
- Inskribatu nahi duzun izena erabiltzen duzula eta izen horrekin deitu ohi dizutela egiaztatzen duten agiri publiko zein pribatuak.

Eskaeran adierazi behar da goizetan zurekin harremanetan jartzeko telefono-zenbaki bat, izena aldatzeko espedienteari dagozkion eginbideak gauzatzeko Erregistro Zibilean agertzeko eguna eta ordua finka daitezen. (Telefono zenbakirik eman ezean, postaz igorriko zaizu zitazioa).

54. art. Debekatuta daude pertsonen kalte objektiboa egiten dieten izenak, identifikazioa

**REQUISITOS NECESARIOS PARA LA
AUTORIZACIÓN DEL CAMBIO DE NOMBRE POR
EL USADO HABITUALMENTE**

1. Deberá solicitarse por escrito dirigido al/a la Encargado/a del Registro Civil de domicilio de la persona solicitante.

Cuando el cambio de nombre lo sea para una persona menor de edad, la solicitud deberá realizarse por ambos progenitores o sus representantes legales.

**Dicho escrito, junto con la documentación que
más abajo se indica, deberá presentarse en la
ventanilla de la Oficina del REGISTRO CIVIL.**

2. En el escrito se harán constar las menciones de identidad y se indicará el nombre que consta en el Registro Civil y el que se quiere poner. Asimismo, se expresará la causa por la que se desee hacer el cambio y que no hay perjuicio para terceras personas con dicho cambio.

DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN AL ESCRITO

- Fotocopia del DNI. En el supuesto que en dicho documento no conste como domicilio el este Registro Civil, deberá acompañarse certificado de empadronamiento (Ayuntamiento).
- Certificado literal de nacimiento.
- Cuantos documentos públicos y privados acrediten que se usa y es conocido habitualmente por el nombre que se desea inscribir.

Indíquese en la solicitud nº de teléfono donde pueda ser localizado por las mañanas a fin de fijar un día y una hora para la comparecencia en el Registro Civil para la práctica de las diligencias propias del expediente del cambio de nombre. (De no tener teléfono se le remitirá una citación por correo).

Art. 54.- Quedan prohibidos los nombres que



zaildu egiten dutenak eta horien osotasunean sexuari buruz okerra eragiten dutenak.

60. art. Aurreko artikulua aipatutako izen-abizenak aldatzeko, nahitaezkoa da beti arrazoi zuzena izatea eta hirugarrenari kalterik ez egitea (81).

Azken auzialdian, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio erregistro zibilen zuzendaritza, eta hark ebazten ditu jar daitezkeen errekurtsoak. Erakunde horren doktrinarekin bat etorritik, aldaketa egiteko arrazoia ez da zuzentzat hartuko aldaketa oso txikia eta garrantzirik gabekoa denean, interesdunaren identifikazioan inolako kalte errealik sortzen ez duelako; izan ere, askotan, pertsonen inguru eta familian apokopeak, kontrakzioak, deformazioak edo izen ofizialaren aldaketa txikia dakarren beste izen bat erabiltzen baita.

Doktrina hori, esate baterako, honako kasu hauetan da aplikatzekoa: Vanesa, Vanessa, Ester, Esther, Elena, Helena, Noemí, Nohemí, etab.

objetivamente perjudiquen a la persona, los que hagan confusa la identificación y los que induzcan en su conjunto a error en cuanto al sexo.

Art. 60.- Para el cambio de nombre y apellidos a que se refiere el artículo anterior se requiere, en todo caso, justa causa y que no haya perjuicio de terceras personas (81).

Conforme la Doctrina de la Dirección General de los Registros y del Notariado, a quien en última instancia le corresponde la dirección de los registros civiles y resuelve los recursos que puedan plantearse, no concurre el requisito de la justa causa cuando la modificación es mínima e intrascendente, porque ningún perjuicio real puede causar en la identificación de la persona interesada por el hecho, tan frecuente, de que una persona sea conocida social y familiarmente con un apócope, contracción, deformación o pequeña variación de su nombre oficial correctamente escrito.

Esta doctrina es de aplicación a casos como Vanesa, Vanessa Ester, Esther, Elena, Helena, Noemí, Nohemí, etc.